
ERRITMO BERRI BAT MARKATZEN: XX ETA XX-GARREN MENDEETAKO MUSIKA IBERIAR PENINTSULAKO HIZKUNTZA KOOFIZIALEN LITERATURA ETA KULTURAN

VARSOVIA (POLONIA) 2018 AZAROAREN 22-23

VARSOVIAKO UNIBERTSITATEKO IBERIAR ETA IBEROAMERIKAR IKASKETEN INSTITUTOA

VARSOVIAKO GALIZIAR IKASKETEN ZENTROA

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA

RAMON LLULL INSTITUTOA

Kongresu honetan Espainiako transizioa eta Portugaleko krabelinen iraultza ondoren eman ziren musika mugimenduek iberiar penintsulako kultura gutxietuen literatura, artea eta kultura orokorraren erritmoa nola markatu duten eztabaidatu eta sakondu nahi dugu. Era berdinean, garai horretako idazle, musikari eta artistek 80garren hamarkadatik aurrea elkarri nola eragin dioten aztertu.

Horrela, ez dugu soilik mugimendu hauetako protagonistetan arreta jarriko baizik eta geroko belaunaldietako idazle eta artistetan mugimendu hauek izan zuten eraginean ere, era berean musikari-idazlearen figuraren garrantzia aldarrikatuz.

Gerra osteko Europan zehar zabaldu zen postmodernitateak, nahiz eta iberiar penintsulara atzerapen nabariaz heldu, arte, kultura, pentsamendu eta harreman sozialen berrikuntza sakona ekarri zuen. Transzizioarekin desengainatuta eta 80garren hamarkadako krisi ekonomikaren eta langabeziaren biktima ziren gazte inkonformistek, momentu horretararte proposatzen zitzairen kultura modelo instituzionalizatu, komertzial eta hutsen kontra bihurtuko dira. Antón Reixak Moviada Madrileñari buruz esan zuen moduan: *“Con isto da movida, ¿que movida? Haiche muito ye-yé...”*

Ez dira gutxi izango garaiko idazleetan inspirazioa bilatzen dituzten taldeak, ezta mugimendu horietako musika taldeetan inspirazioa lortu duten idazleak ere.

Galizian beraien idiosinkazia eta humore bereziarekin “Moviada Atlantika” eta geroko “Rock Bravú“-a Moviada Madrileñatik banatzeko “telón de grelos” zeritzon hezi

postmodernoa eraiki zuten. Garai honetako Galiziar kulturaren mugimendu berriek ezinhobeto aprobetxatu zuten sortu berri zen galiziar irrati-telebista autonomikoaren agerpena eta, bere eskutik, berpizkunde bortitz bat nabari izan zuen belaunaldi berrien soinu banda izatea lortzeraino.

Musikaz haratago, mugimendu hauetara lotu ditzakegu “atlantismo”aren kasuan Lois Pereiro, Xavier Seoane eta Xulio Varcancel poetak, besteak beste, edota Santiago Jaureguizar, Manuel Rivas eta Xurxo Souto “Bravú”ren kasuan.

Bitartean, Euskal Herrian, 60garren hamarkadaren bukaeran, folkloreak esparrura mugatuta zegoen euskal kultura berpizteko eta modernizatzeko asmoarekin, Ez dok Amairu mugimendu abanguardista eta multidisziplinarra sortu zen. Ez dok Amairu osatzen zuten musikari, idazle eta artisten elkarlanak garai horretaraino euskal kulturaz ulertzen zenari buelta eman zion betiko eta kultura eraberritzea posible zela erakutsi. Hala ta guztiz ere, 80garren mendeak iraultza askoz ere sakonago bat ekarri zuen Euskal Herrira: Euskal Rock Erradikala. Krisi politiko-sozial sakon batean murgilduta, Euskal Herriko gazteentzat Ez dok Amairuk proposatutako kultura eredua zaharkituta geratu zen eta haien amorrua, aurrerantzean euskal herriko kultura eta jendearen irudia eta izaera definituko zituen mugimendu erradikala sortu zuten. Gaztelanieraz abesten zuten taldeekin batera, euskeraz abesten zutenak agertu ziren. Zarama, Ertzainak edo Kortatu bezalako taldeak funtsezko eragina eta izan zuten euskal gazterian eta ondorioz euskera lehenengo aldiz modernitatea eta errebeldiaren sinboloa bihurtzen da haientzat. Momentu honetatik aurrera euskera beti egongo da lotuta euskal gazteen kulturara.

Nabarmentzekoa da mugimendu honetako musika eta literaturaren arteko harremanak eta eraginak. Bai Pott banda osatzen zuten Bernardo Atxaga edo Joseba Sarrionaindiaren idazleen obrek musikan izandako eragina, bai aldi berean musikari, letrista eta idazle diren Xabier Montoya eta Asier Serrano bezalako artistak eta bai Euskal Rock Erradikalarekin hazi ziren gaur egundo idazleen obretan musika honek izandako eragina ikertu nahi dugu. Garaiko nihilismo eta amorruaz aparte nola musikak literaturaren mundua hurbiltzen dien entzuleei eta nola literaturak irakurleei musika hurbiltzen dien.

Kataluñan bestalde, transiziorarte Espainiako musika ekoizpenaren zentrua izandakoa, ez zen errotu Quim Monzó bezalako idazleen bebespean sortutako Doble Buble taldeak merkatuan sartzeko egin zituen saiakerak. 80-garren hamarkada

ordurarte Bartzelonako eszenatokietan nagusi izandako anarko-katalanista izaerako Rock psicodeoliko eta experimentalaren azken astinduekin hasi zen. Honekin, estilo honen adierazgarririk onenetarikoa den Pau Riba, ordurarteko “Seny” katalana eta goi kultura tradizionalaren ordezkaria zen bere Aitona Carles Riba poetak adierazten zuen guztiaren kontra errebelatzen zen. 90garren hamarkadak Rock catalàren sorrera suposatu zuten. Mugimendu hau, lehenengo aldiz kataluniar hizkuntzan hazi eta hezitako gazteen adierazpenerako herramienta bihurtu zen eta gaur egungo idazle eta artisten inspiraziorako abiapuntu bihurtu katalunian ezezik baita Balear irletan eta Valenzian ere. Besteak beste, Xavi Sarrià abeslari Valenziarra lehenago Lluís Llach bezala literatura munduan murgildu izan da.

Azkenik, nahiz eta mirandar hizkuntza XX-garren mendearen azken urteetararte ofiziala ez izan, ezta ezin dugun krabelinen iraultza kulturaren iraultzaren abiapuntutzat hartu, badaude 90garren hamarkadan ikertzen ditugun beste hizkuntza gutxituekin lotzen dituen fenomenoak.

Hizkuntza mirandesaren kasuak arlo honetan euskera, katalanera eta galizierarekin alderatzea zaila egiten duten zenbait berezitasun jasotzen ditu. Garrantzitsuenetariko bat hizkuntza honek dituen hiztun kopuru urria da, aztergai dugun gai honetan ekoizpen maila nabarmen baldintzatzen duena. Hala eta guztiz, hizkuntzaren ofizialtasunari ezker 90garren hamarkadaz geroztik entzule eta irakurle mirandesez gain bestelako publikorengana heldu diren taldeak eta idazleak sortu egin dira.

GONBIDATUTAKO ARTISTA ETA PLENARIOAK

María Xosé Silvar Sés

Xavi Sarrià

Asier Serrano

Alberto Fernandes

ZIENTZIA KOMITEA

António Bárbolo Alves (Universidad de Trás-os-Montes e Alto Douro)

Helena González Fernández (Universitat de Barcelona)

Anna Kalewska (Uniwersytet Warszawski)

Roger Martínez Sanmartí (Universitat Oberta de Catalunya)

Cristina Martins (Universidade de Coimbra)

Zofia Marzec (Uniwersytet Warszawski)

Katarzyna Moszczyńska (Universidad de Varsovia)

Mari Jose Olaziregi (EHU-UPV)

Llorenç Soldevila (Universitat de Vic)

Dolores Vilavedra (Universidade de Santiago de Compostela)

ANTOLAKUNTZA KOMITEA

PRESIDENTEA

Maria Boguszewicz (Uniwersytet Warszawski)

Aitor Arruza Zuazo (Uniwersytet Warszawski)

Michał Belina (Uniwersytet Warszawski)

Magdalena Gajewska (Uniwersytet Warszawski)

Ana Garrido González (Uniwersytet Warszawski)

Raquel González (Universidad de Oviedo/ Uniwersytet Warszawski)

Alfons Gregori (Uniwersytet Adam Mickiewicz Poznań)

Borja Logares Carbajales (Uniwersytet Warszawski)

David Monzó Campos (Uniwersytet Wrocławski)

KOMUNIKAZIOAK ETA ARGITALPENA

Komunikazioak euskeraz, galizieraz, katalaneraz, mirandeseraz, gaztelanieraz, portugueseraz eta ingeleseraz egin ahalko dira eta 20 minutuko iraupena izango dute.

Kongresuan parte hartzeko interesatuta dauden pertsonak inskripzio formularioa bete eta bidali beharko dute gehienez 200 hitzetako hitzaldiaren proposamena, hizlariaren izena, unibertsitatea eta helbide elektronikoarekin.

Proposamenak kongresuaren helbide elektronikora bidali beharko dira **2018-ko ekainaren 30a** baino lehen: congreso.musylit@gmail.com.

Inskripzio kuota 60 EURO / 250 PLN-takoa izango da eta ordainketa 2018ko irailaren 15a baino lehen egin beharko da.

Kongresuan aurkeztutako artikulu aukeratu batzuk *Itinerarios* aldizkarian (<http://itinerarios.uw.edu.pl/>) argitaratuak izango dira.

Informazio gehiagorako kongresuaren web horrialdea bisitatu daiteke <https://congresomusicavliteratura.wordpress.com/> edota kongresuaren helbide elektronikora idatzi: congreso.musylit@gmail.com.



Inskripzio formularioa

Izen abizenak	
Erakunde Akademikoa	
Helbide elektronikoa	
*Fakturarako datuak (izena, helbidea, erakundearen IFZ)	
Ponentziaren izenburua	
laburpena (200 hitz)	
Gako-hitzak	